



BERTSOLARHITZA FINALEAN ALEGIA ETA ALTZO

Larunbat honetan, hilaren 4an, jokatuko dute BertsolarHITZA Txapelketaren finala, Ibarako Gaztetxean »7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-03-31

VIIURTEA 1.667.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



627 mendizalek hartu zuten parte mendi martxan. I. URRUTIA

600 LAGUNETIK GORA AIZKARDI ELKARTEAREN 41. MENDI MARTXAN

VILLABONA Antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira aurrengoak eman duenarekin, eta eskerrak eman dizkiete lagundu duten guztiei »6



Atzo elkartu ziren parte hartzen ari diren 15 lagunak. E. EZEIZA

Zahartzaroan autonomo izaten ikasteko jarduerak abian dira

TOLOSA Udalak antolatuta, 70 urtetik gorako 15 lagun ari dira parte hartzen ekimen honetan »4

Gizonezko bat atxilotu du Ertzaintzak ustez bikotea jipoitzeagatik

TOLOSA Herenegun gertatu zen; atxilotu duten gizonezkoak 33 urte ditu »4

Identifikatzen ari dira 'Pirula'-ren omenezko koadroa hautsi duten gazteak

TOLOSA Igande goizaldean bigarren erasotu zuten Txitxi Orbegozoren lana »2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA Korrikarekin bat!



HITZAK harpidedunentzat **KORRIKA**ko
6 kamixeta ditu

Emakumezkoen 3 kamixeta eta gizonezkoen beste 3 kamixeta.

kamixetak eskuratzeko deitu:
943-65 56 95
harpidedun kodea eskura duzula



'La Pirula'-ren omenezko koadroa hautsi dutenak identifikatzen ari dira

Ezbeharra » Igande goizaldean hautsi egin zuten bigarren jarri ostein; Udaltzaingoa grabatu egin zuen ekintza.

INIGO TERRADILLOS

Bigarren erasotua izan da Txixi Orbegozok *La Pirula* pertsonaia-
ren omenez jarritako koadroa. Gaztelako atean jarri zuen pasa den ostiralean, eta igande goizaldean hautsi egin zuten hainbat ezezagunek.

Udaltzaingoa adierazitakoaren arabera igandean, 03:30ak inguruan gertatu zen eraso. Antza 15-17 urte bitarteko gazteak izan dira erasotzaileak, izan ere eraso gertatu zen unera grabatu du Udaltzaingoa, baina gazteak ez ditu identifikatu oraindik; «identifikatze lanetan gabiltza, beraz, oraindik ez dakigu nongoak diren ere».

Koadroa bi zatitan hautsi zuten, eta lurrean geratu zen zatia udal-



Itxura hau zuen *La Pirula*-ren omenezko lanak atzo. I.T.

tzainek gorde zuten; hain zuzen ere, atzo joan zen Txixi Orbegozok zati horren bila. «Uste dut bi zatiak batu ahalko ditugula», dio artistak eta ekimen honen sortzaileak.

Gertaera hauen aurrean, bera

baino haserreago nabaritu dituela herritarrak dio; «jendeari proiektua asko gustatu zaio, eta benetan minduta sentitu dira horrelako ekintzak ikusi dituztenean; hone-tatik nire erreflexio handiena zera

da, nola den posible horrelako gau-
zak gertatzea gazteen artean».

Hori bai, aurrera begira, hirugarren lanarekin hasia dela dio tolosarrak, eta «ilusioz beterik» aurkitzen dela.

Laburrak

Korrika batzordeak deituta, bilera, etzi

KORRIKA » Etzi igaroko da Korrika Tolosaldeetik. Hala, egun horretan bertan, Korrika batzordearen balorazio bilera egingo dutela adierazi dute antolatzaileek. Ohiko bezala, Li-zardi elkartean izango da, 19:30ean.

Arantzazura igogera joateko autobusa

ERLIJIOA » Larunbat honetan, hilaren 4an, hau da, Erramu bezperan, Arantzazura igogera egingo dute, urtero bezala, Elizbarrutiak antolatuta. Bertara joateko autobusa antolatu dute. Hau San Frantzisko elizaren aurretik irtengo da 07:55ean. Txartelak parroketan lortu ahalko dira.

Galiziar irteera antolatu du Harizpe elkarrekin

ASIA » Maiatzaren 11tik 17ra Galiziar bidaia antolatu du Harizpe jubilatu elkarrekin. Egonaldian Galiziar hainbat txoko ikusi ahalko dira. Izena eman daiteke elkartean maiatzaren 7ra arte.

Hainbat ezezagunek Batzokia eraso dute molotov koktel batekin

Politika » Herenegun goizaldean gertatu zen eraso; barruan jendea zegoen, baina ez zen zauriturik izan, bai, ordea, kalte materialak.

ERREDAKZIOA

Igande goizaldean ezezagunek Tolosako Batzokia eraso zuten molotov koktel batekin. Une horretan barruan jendea zegoen arren, ez zen zauriturik izan, baina bai kalte materialak.

Goizaldeko ordubata aldera

gertatu zen eraso. Hainbat ezezagunek molotov koktel bat jaurti zuten. Une horretan hainbat lagun zeuden afaltzen Zumalakarregi kalean kokaturiko Batzokian, eta erasoaren ondorioz, egoitzaren barrutik irten beharra izan zuten segurtasun neurri bezala. Ez zen

zauriturik izan, baina kalte materialak izan ziren, eraikinaren kanpoaldean dagoen kartela, esaterako, erre egin zen.

Erasoaren aurrean erantzuna

Erasoa eman ondoren, erreazioak iritsi ziren seguitan hainbat alderdi politikoren aldetik; EAJk adierazi du «horrelako erasoek ez dutela laguntzen guztiek nahi duten bake prozesu batera heltzeko».

PSE-EEK babesa adierazi dio EAJri eta «euskaldunek lasai bizi

nahi dute, eta ETA arbuiatzen dute», azaldu du. Aralarrek ere babesa azaldu dio EAJri eta, «bide politikoak soilik erabilitzea» dela bidea adierazi dute.

Ezker Batuak ezker abertzaleari «bide politiko eta demokratikoen bidetik josteko apostua egin dezan» eskatu dio. PPK azaldu du eraso hauen kontra irmo jarraituko duela, eta Eusko Alkartasunak EAJri babesa azaltzeaz gain, azaldu du «horrelakoek zaildu» egiten dutela «normalkuntza lortzea».

Hilberria

'KUXITA' IRIARTE OTERMIN



AMESTEN ZENUEN
EUSKAL HERRI ASKE ETA
EUSKALDUNA LORTU
BITARTEAN LANEAN
JARRAITUKO DUGU.
MILA ESKER.



Tolosako ezker abertzalea

TOLOSAN
2009ko
martxoaren 31n

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

MARIKRUZ IRIARTE OTERMIN 'KUXITA'



2009ko martxoaren 30ean utzi gaitu
Bere senideak: Pontxo eta Mari Kruz Okiñena, Manuel (†), Floren eta Arantxa Gorostiaga, Euxebio eta Pirlartxo Garmendia, Margot eta Joxe Manuel Atxaga, Kilka eta Juanito Ugarte (†), Iñaki eta Kati San Vicente; ilobak: Maddalen, Mikel, Nerea, Ainhoa, Imanol, Aritz, Orti, Onintze, Unai, Oihana, Igor (†), Aitor, Inko eta Ibai.

Gorpua Tolosako Beilatokian dago, asteartea 13:00ak arte eta 13:30ean erraustuko da Errekaldeko Tanatorioan.



TOLOSAN
2009ko
martxoaren 31n

'KUXITA' IRIARTE OTERMIN



IZAR BERRI BAT
PIZTUTZERA DOA
EUSKAL HERRIKO
ZERU GAINEAN
KUXI
ESKERRIKASKO



Zure bilobak

TOLOSAN
2009ko
martxoaren 31n

Jazza bertsoa orrazten

» Kritika

'Bertso Jazza'

Joxemi Saizar

Garai batean hiriburua izan zen Tolosa, gaur egun buru hiria dela esan zuen Andoni Egañak agurrean, zenbait tolosar mediati-ko aipatuz. Eta bertsolarietan eta jazz musikan buru diren bederatz artistak izan ziren larunbat gauean Leidor aretoan ikuskizun berri eta berritzailea aurkezteko, bi munduetako ekarpenak uztartuz. Aspaldian esan zuen Bernardo Atxagak errezitaldi batean poesia eta musika elkartzea hitzaren kalterako izaten dela, normalean musikak jan egiten duelako. Horrelako zer- bait gertatu zitzaidan ikuskizunaren uneren batean, musika doinuak bere eremura eramanez, bertsoa alde batera utziz.

Baina une gehienetan uztarketa paregabea lortu zuten taula gaine-koek. Pelukerirako musika bezala definitzen du lagun batek jazza. Bada kasu honetan bertsoa orrazteko eta jendaurrean txukunago aurkezteko tresna aparta bilakatu zen.

Hasier Oleaga perkusiojolea entzuteko aukera beste batzuetan ere izan dugu hemen. Beste behin ere bere tertziopelozko makiltxo-ekmirariak egin zituzten platertxo eta larruen gainean dantzan. Ez dadila azken bisita izan Oleagajau- na. Bixente Martinez kitarran, Jon Piris kontrabaxuan, Asier Ituarte tronboian eta Julen Izarra saxoetan ere ederki moldatu ziren ari- ketaberrian. Bakoitzak bere protagonismoa izan zuen, eta bide bihurrietatik doinutik urrutiratu ondoren, Kubaraino ere iritsi ziren, ondo itzuli ziren berriro oinak

lurrean jartzera. Bidai intimo horietan bertsolariak izan zituzten bidelagun. Kasuren batean bere *trena* martxan zela igo zen bertsolariaren bat. Realeko txandalaren bila ari zen Amets Arzallus, adibidez.

Bertsolariak dantzan hastera bakarrik falta zela pentsatu nuen unean, Maialen Lujanbio eta Jon Maia txalo, kriskitin eta aldaka mugimendu txiki batzuekin hasi ziren hegaldi laburrean. Hamargarren artista Unai Elizasu gai jar- tzailea izan zen. Hitz gutxitan gauzak bere tokian jartzen asmatu zuen, gai interesgarri bezala. Jaz- z zaleek ez zuten inoiz hainbeste bertso entzungo, ez eta bertsozaleek hainbeste jazza. Bai- na bide berri honek fruitu onak eman ditzakeela frogatuta gelditu zen. Txirritak burua altxako balu!



Emanaldian giro bikaina izan zen eta uztarketa bikaina lortu zuten taula gainean. NEKA

Berdinketa Elgoibarren

Areto futbolak »

Laskorain taldea 5-5eko markagailuarekin bueltatu zen etxera, Kenci taldearen zelaitik.

ERREDAKZIOA

Gustura zeuden Laskorain areto futboleko jokalariek Elgoibartik bueltan, igoera lortzeko ahalegi- netan den Kence arerio indartsua- ren aurka berdinketa eskuratu on- doren. «Aurtengoan edozein aur- kari motaren aurka lehiatu eta irabazteko gaitasuna dago», adie- razi dute taldeko ordezkariak.

Alonso entrenatzaileak ezin izan zuen bere mutilekin bidaiatu eta den Egizabalek bete zuen bere lekua asteburuan.

Zonakako defentsa baten plan- teamendurekin kantxaratu ziren horitxoak lehen zatian eta 0-1 gal- tzen hasi izanagatik, buelta emat- en asmatu eta Lander, Saldias eta Murgiren golei esker 1-3ko emai- tzarekin aurreratu ziren tolosa- rrak. Markagailu honekin joan zi- ren aldagelatarra.

Bigarren zatian gauzak aldatu ziren

Markagailuan nagusi azaldu arren, behar baino gehiago sufritu zuten ikastolakoek etabigarren er- dian banakako defentsa batera eratu zuten taldea. Hasiera nagis- tu batek Elgoibarkoen berpizpe- na baimendu eta 4-3 aurreratu zi- tuzten etxekoak 15minutu luze gel- ditzen zirenean oraindik jokatzeke.

Esnatzeko unea ailegatu zen or- duan eta Amatriainek eta Gilek 4-5ekoa ipini zuten laskorainda- rren partzialik onenean, 5-5-eko berdinketa norgehiagoka amai- tzeko 4 minuturen faltan erori zel- larik. Gol aukerak bi ateeetan gerta- tu ziren baina markagailu adosta- sunean lotu zen.

Taldeko arduradunek Endika atezainaren neurketa azpimarratu nahi izan dute, "gelditu bikainak egiteaz gain, ederki defendatu bai- tuzuen area txikia".

Filialen garaipenak

Filialak 1-2 irabazi zuten Azkoitian eta Pradosen neskek ere 0-3 men- deratu zuten La Salle taldea, ikas- tolaentzat astebukera on bat si- natuaz areto futbolaren arloari da- gokienez.

Laburrak

Usabiaga eta Eskamendi, lehen eta hirugarren

TOLOSA ● Tolosa CFko emakumez-ko txirrindulari taldekoak Balma- sedan izan ziren pasa den astebu- ruan. Bertan euskaldun nesken txapelketa jokatu zuten eta etxera emaitza politekin bueltatu ziren gainera. Hain zuzen ere, kadeteen mailan Irene Usabiaga txirrindula- riak urrezko domina lortu zuen le- hen postuan helmugaratuta. Dor- leta Eskamendi ere hartu zuen parte, junior mailan eta beraren- tzat hirugarren postua izan zen.

Araxesko Mendi Itzulian izena emateko aukera

TOLOSA ● Amaroako Auzo Elkar- teak IX. Araxesko Mendi Itzulia an- tolatu du datorren apirilaren Sera- ko, igandera. Ibilbidea Tolosaldean eta Nafarroan barrena izango da. 07:00etan abiatuko dira eta 9-11 ordu inguruko ibilbidea izango dela aurreikusi dute antolatzaile- ek. Dagoeneko izena eman daite- ke 656 00 89 57 (Jose Mari) tele- fono zenbakira deituta edo *auzo- etxe@hotmail.es* helbidean. Parte-hartzea doakoa da.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidrerriakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 372 691 Aginaga-Usubil
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbartarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburu auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

Autobusak eta autobusaren zerbitzuak
Ezkerreko zerbitzuak
Ezkerreko zerbitzuak, iturriak, argiztapenak...
Mundak kalea, 24 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA
www.diezautobusak.com



Atzo arratsaldean elkartu ziren egun egitesmoan parte hartzen duten 15 lagunak, hainbat jarduera egiteko. E. EZEIZA

Zahartzaroan ere autonomo izaten ikasteko jarduerak

Gizartea » Duela gutxi martxan jarritako Mendekotasunaren Prebentziorako Egitarauari jarraipena eman nahi diote.

ESTI EZEIZA

Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuek mendekotasunari aurre egiteko, 70 urtetik gorako helduei zuzenduta, egitasmo bat jarri zuten martxan duela hilabete batzuk. Egun, 15 lagun inguruko talde bat dago, eta hau, astebitan elkartzen da jarduera ezberdinak egiteko.

Gizarte zerbitzuetako enasmoz da laister beste talde bat osatzea,

herriar gehiagorengana zabalduz. Aktibitate hau doakoa da eta interesatuek, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jota eman dezakete izena.

Egitasmo honen helburu nagusia mendekotasunak eragiten dituen eragozpenak gainditzea da, eguneroko bizimodua hobetuaz eta aisialdia era aktibo batean betetzaz. Honetarako, saioetan, hainbat jarduera ezberdin egiten dituzte. Honela, egun dituzten indarrak mantentzen jakiteko, eta okerrera ez joateko ariketak egiten dituzte. Bestalde, partaideen hitzetan, «aisia aprobetxatzeko modu egokia da». Memoria, artikulazioak eta eskuak lantzeko ariketak egiten dituzte, besteak beste. Hala, egunka-

riak irakurtzen dituzte, gimnastika egiten dute, eskulanak, karta jokak...

Atzo, komunikabideak ez ezik, gizarte zerbitzuetako teknikariak eta zinegotzia ere joan ziren, saioetako bat ezagutzeko. Parte-hartzaile guztiak gustura agertu ziren jarduerekin, eta jendea ezagutzeko nahiz harremanak sortzeko aukera ematen zutela azpimarratu zuten.

Jose Agustin Arrieta, Gizarte Ongizateko Komisioko lehendakariaren ustetan, saio hauek autonomia lortzeko eta mantentzeko garrantzitsuak dira. Gainera, «denbora aprobetxatzeko, eta bakoitza bere buruaren jabe izateko oso garrantzitsuak dira».



Txangora joaten direnek Mendaurko txabola ezagutu ahal izango dute. HITZA

Artikutza eta Ituren aldera joateko aukera igandean, Alpinorekin

Kirolak » Alpino Uzturre mendi elkarteak irteera bat antolatatu du apirilaren 5erako; Izu, Ekaitza eta Mendaur igoko dituzte.

ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre mendi elkarteak mendi irteerabate antolatatu du igandean honetarako, hau da, hilaren 5erako.

Bian ditz mendatean hasi eta Ituren bukatuko da txango hau. Izu (829 m.), Ekaitza (1047 m.) eta Mendaur (1131 m.) mendiak igoko dituzte. Irteeraren iraupena, gutxi gorabehera sei ordu eta erdikoa da. Lehendabiziko tontorren inguruan larre ugari aurki daitezke, eta inguru guztiak basoz inguratuta dauzka, pagadiz gehien bat. Oso bide garbiak eta atseginak

dira hauek. Izue (Izue) izenaz ageri da zenbait lekutan.

Mendi ederra da Mendaur. Ez dauka aldamenean bera adinakoarik eta ikuspegi zabala eskaintzen du Bortzirien gain. Leizta aldean hasten den mendikate luze baten amaieran dago eta bera da kate horretan gain altuena eta arkaizsuenena. Parapenteaz ibiltzeko aprobetxatzen du zenbait lekutan. Ermita bat dauka tontorrean, ermita eta aterpe lanak egiten dituen, eta Ermita dela eta, gurutzea ere bai, Aurtitz aldetik abiatuta.

Autobusa Santa Klaratik 07:30ean aterako da. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 13. Izen-ematea elkartearen bertan egin daiteke. Baita, ondorengo telefono zenbakira deituta: 943 65 27 89 edo alpinouzturre@hotmail.com helbide elektronikora idatzita.

Lau egunen bueltan, bigarren emakume bat erail dute

Gizartea » Ostiralean Izaskun Jimenez heriotza salatzeke elkartu ziren; atzo berriz, beste erailketa bat salatu zuten.

ERREDAKZIOA

Aste bat ere ez da igaro Izaskun Jimenez erailketa salatzeke hainbat lagun San Frantzisko elizaren aurrean elkartu zirenetik. Atzo, egoera bera errepikatu zen. Jende ugari bildu zen toki berean, genero indarkeriaren ondorioz, gasteien izandako azken heriotza salatzeke.

Hilaren 23an, astelehenean Gasteizko Txagorritxu ospitalean zendu zen Milagros Salazar. Gasteizko parke batean zorabiatu zen Salazar, eta larrialdi zerbitzuek bihotza geldirik zuela aurkitu zuten. Ospitaleratu eta ordu erdira hil zela jakinarazi zuten. Iturri arabera, hil baino bi egun lehena-



Hainbat lagun bildu ziren atzo Milagros Salazarren heriotza gaitzesteko. E. E.

go, Salazar jipoiu egin zuen senarrak. Hain justu, senarrarengandik ihes eginda bizi zen Salazar Gasteizen, hiru seme-alabekin. Salazarren heriotza emakumeen kontra indarkeria kasu gisa hartu du Emakumeen Mundu Martxako Plataformak, eta hainbat mobilizazio egin dituzte. Atzoko agerraldian Bilgune Feministakoek berriro ere «Emakumeen aurkako indarkeriari sustraietatik eragiten ez zaion bitartean, arazoak bere horretan jarraituko» duela dio.

Tolosan ere asteburuan, beste eraso bat izan da

33 urteko gizonetako bat atxilotu zuten Ertzaintzak asteburuan, bikotea erasotzea leporatuta. Ertzaintzak jakitera eman zuenez, Euskal Autonomia Erkidegoan bost atxiloteta izan ziren herenegun emakumeen aurkako indarkeria kasuengatik. Horietako bat Tolosan gertatu zen; hain zuzen ere, 33 urteko gizonetako bat atxilotu zuten bere bikotea jipoiu izana leporatuta.

Bide Bide Ibizakoak berriro ere ezinean

Saskibaloia » Urdaneta izan zuten aurkari azken jardunaldian, eta 73-77ko emaitzarekin galdu zuten eskualdekoek.

ERREDAKZIOA

Beste behin ere, partida parekatu izan ez zuen garaipena lortzerik izan Bidebide Ibizakoek, Urdanetaren aurrean. Oraingo honetan ere bajak ziren nagusi taldean, bost jokalariren hain zuzen ere.

Aurreko partidetan falta izan zuten tentsioa erakutsi zuten tolosarrekin baina aurkaria ere gogo berearekin etorri zen, ez baitaude behiko fasea jokatzera ohituak (pasa den urtean igogera fasea jokatu zuten) eta lehen bailehen ziurtatu nahi dute datorren urtean ere Le-

hen Mailla Nazionalen izatea. Lehen zatia, partida osoa bezala, oso parekatua izan zen, batzuen eta beste saskiratzeekin, eta atsedemaldira aurretik joatea lortu zuten etxeko taldeak (42-37).

Bigarren zatian, ordea, bizkaitarrek pixkanaka alde murriztu eta aurretik jartzea lortu zuten, hirugarren laurdenean egindako lanari esker (12-24), partida amaiera estu batean, lau puntuko errenta mantentzea lortuz. Azkenean 73-77 eta lidergo galdu zuen Bidebide Ibizak.

Datorren astean hil ala biziko partida jokatu du taldeak Arrasaten. Mondragon Unibertsitatea, azken laugarren postuan aurkitzen da, eta u honetan talde hau da jaitziko liratekeen lau taldeetan hoberen kokatuta dagoena. Hiru partidien alde dute tolosarrekin.

Z Zurea da hitza info

Inauterietako zezen kontuak daramatenentzako idatzia

TXILABA ELKARTEA

Txilaba elkargoko kideak gara, Inauterietako Lagunen elkarteak. Urtero bezala, Astelenitan Konpartsan atera ginen eta dagoeneko 20 aldiz gure bizitzan: Zilarrezko ezteietara hurbiltzen ari gara.

Euskal Herria plazako jubila-tuen elkarten sortu zen talde hau, bertara joaten ziren helduenei poza edo ilusio bat sortu asmoz. 65 urte ingurukoak ziren heldu haiek. 1990eko otsailaren 26an egin zuten lehen agerraldia Inauterietan.

Guztia aurrera eramateko animatzaileak, ilepaintedzaileak, zentroko hainbat langile... elkartu ziren (hauek zertxobait gazteagoak ziren).

Ez zaizkigu hasierako taldea osatzen zuten pertsona asko gertzen, baina kontuak egiten, ikus daiteke gaur egun bizi direnek 85 urte inguru dituztela.

Hau gogoan hartuta eta zezenetara joaten garela ulertzeko, argituko dugu ondoren: zezenetara joaten gara gustatzen zaigulako, eguna desberdinagoa izateko eta atsedean pixka bat hartzeko modu bat delako, eta arratsaldean gelditzen diren ekitaldietan aguantatzeko. Astelehenetako zezenetara joateko palkorako sarrerak lortzea zaila dela kontuan izanik (iaz Leidorrengoizeko hiruretatik 11:00ak arte, hau da; takilla irekitzen den ordura arte itxaron behar izan genuen), Jai Batzordera jo genuen eskaera bat egiteko: gure lehen eskaera 20 urtetan. Eskaera honakoa izan zen: gradako 25 sarrera ingu-



1990eko otsailaren 26koa: «Colegio Hermanas Animadoras», HITZA



Aurtengo otsailaren 23koan (20 urte geroago), Majorette-z jantzita. HITZA

ru erreserbatzeko, ez palkokoa, eta euren erantzuna ez zen oso gozoa izan: ileran jarri beharko ginela.

Bada, ez, ez ginen ileran jarri, besterik gabe, ez ginen zezenetara joan, agian baten batek faltan bota gintuen. Eguraldia ez zenez oso txarra izan, txaranga batekin sartu ginen plazara. Haiekin buelta bat eman eta berriz kanpora joan ginen: buelta osoan zehar eurria besterik ez zuten egin.

Idatzi honen bitartez geure hasierara, ezinezkoa adierazi nahi dugu, eta irtenbideren bat bilatzea nahi genuke hurrengo urteetarako. Eta irtenbide hau, orduan erantzun ziguten bezala, zezen-plaza handitzea ez izate eskatzen dugu, ez baitira garai onak halako gastuetan sartzeko.

Zilarrezko ezteiak betetzeko prest gaude eta ahal bada Urrezkoak ere beteko ditugu.

Leire Olaberriak ez du nahi bezalako Munduko Txapelketa egin

Txirindularitza » Erori egin zen Scratch-en eta igandekoan 7. egin zuen, bere aurrean izandako erorketa batek nahastuta.

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria pista txirindulariak ez zuen asteburuan jardunaldi onik izan; herenegun puntuazioko proba zuen Polonian, Munduko Txapelketan eta zazpigarren egin zuen. Proban erorketa bat izan zen bere aurrean, eta horrek zertxobait despistatu zuen ikaztegi-etarra.

Hasiera oso ona egin zuen Olaberriak, baina une batean «guztiz

lehiaketatik kanpo ikusi nuen neurere burua». Horregatik, Munduko Txapelketako balantzea egiteko garaian «ona ez dela izan» adierazi zuen.

Aurrekoan gogoratu behar da, Scratch-en, proba bukatzeko 8 buelta falta zirenean, erori egin zela, eta azkenean 18. bukatu zuen. Yumari Gonzalezek irabazi zuen. Erorketaren arte oso ondo ari zen lana egiten. Erorketaren ondorioz ukondoak urratu zituen, «baina herenegungo proba egiteko osatuta nengoen».

Ana Usabiaga benjamina taldeko jazarpenean aritu zen eta esperientzia hartzea zen bere helburu nagusia. 14. postuan bukatu zuen taldeak.

Laburrak

Bihar, Francisco Fajardo osteopataren hitzaldia

AMEZKETA » Bihar, Amezetako Guraso Elkarteak antolatuta, Francisco Fajardo Ruiz osteopata hitzaldi bat emango du. Osteopatologyaren ikuspegitik, haurtzaroko gaixotasun arruntenak eta bere tratamenduaz ariko da aditua. 15:30ean hasiko da, Zumadi eskolan. Osteopatiak gorputza-sistema guztiak batera lan egiten dutela defendatzen du, eta ondorioz, sistema bateko gorabeherek beste sistematan eragin dezakeela.

Oinarrizko informatika ikastaroa dohanik

AMEZKETA » Amezetako KZguneak informatikako ikastaroak antolatu ditu, oinarrizko ikastaroak. Beraz, hauetan, Internet erabiltzeko, kutxako gestioak egiteko... aukera asko ematen ditu. Informazio zehatzagoa liburutegian emango dute eta izena eman nahi izanez gero, liburutegian egin behar da. Ikastaroak dohanik dira.

Autoestimaz ariko dira ostiraleko hitzaldian

IKAZTEGIETA » Datorren ostiralean, 17:00etan hasita, Kutxako Gizarte Ekintzak antolatutako hitzaldi bat egongo da Ikaztegiako Udal Liburutegian. Gaia honakoa izango da: *Ongizate pertsonalerako gomendioa: autoestima*. Hitzaldi honen helburuak honako hauek dira: nor bere burua onartzeko eta baloratzeko erremintak eskaintzea, jendeari ikusiaraztea nolako harreman estua duen autoestimak bizitzan honetan gustura egotearekin, eta alde horretatik, nolako garrantzia duen autoestima handitzeak.

Gaur zortzi, bular minbiziaren prebentzioaz

IKAZTEGIETA » Bular minbiziaren prebentziora buruzko hitzaldia antolatu dute Ikaztegiaren, gaur zortziko, Udal Liburutegian, 18:00etan hasita. Hitzaldi hau Kaxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbiziaren Duten Emakumeen Elkarteak emango du, Udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez. Bular minbiziaren arrazoiak azterketaz, tratamenduaz, prebentzioaz... ariko dira. Bideo emanaldia ere izango da.

Igandeko Korrika festarako autobusa antolatuko dute

IBARRA » Ibarra Bai Euskal Herria taldeak datorren igandean Gasteizen bukatuko den Korrika festarako autobusa ateratzeko asmoa dauka. Autobusa 09:30ean aterako litzateke Ibarra Kultur Etxe paretik eta Gasteiztik 19:30ean bueltatuko litzateke. Autobusean joan nahi duen orok Ibarra Atari eta Zubiaurre tabernetan eta Tolosako Raku tabernan dauden zerrendetan izena eman beharko du eta dirua aurretik ordaindu beharko da: 10 euro helduentzat eta 7 euro 20 urtetik beherakoek. Izena emateko azken eguna etzi izango da. «Festa ez da faltako».

UEMAri buruzko herri bilera, apirilaren 6an

AMEZKETA » Datorren astelehenean, apirilak 6, 20:30ean hasita Amezetako baliantzeko gelan UEMAri buruzko (Udal Euskaldunen Mankomunitatea) herri bilera izango da. Bilerak irekia da, eta herria UEMAri buruzko suposatuko duenez ariko dira besteak beste.



Korrika iritsi baino lehenagokoak

EUSKARA » Herenegun Alegian, Korrika 16ren aldeko hamaiketako eta dantzariak izan ziren. Alegiako Korrika batzordeak jatekoak eraman zituen eta giro polita sortu zen. Korrikaren aldeko ekitaldi gehiago badaude, esaterako, Ibarra gaur. Jon Maiaren *Bidaia in-*

timoa dokumentala emango dute Kultur Etxean, 19:30ean. Lau euskal herritarren bizipenak azaltzen dira. Zizurkilen, etzi herri bazkaria egingo dute Urkamendi elkarteak eta izena emateko azken eguna gaur da, 943 300 484 telefonora deituta. P. RENOBALES



Mendizaleak ibilaldi luzea egiten. Zenbait lekutan putzuak aurkitu zituzten, baina ez zuen euririk egin. IVUYA URRUTIA

627 mendizale Aizkardikoan

Villabona » «Oso gustura» daude mendi elkartekoak 41. Ibilaldiarekin; 356ek hasi zuten ibilaldi luzea eta 271k ibilaldi motza.

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendi Elkartea «osogustura» azaldu da 41. Mendi Martxa nola joan den ikusita. Guztira 627 mendizalek parte hartu zuten bi ibilaldietan, 356 ibilaldi luzean eta 271 motzean, eta horietatik ia guztiak amaitu zuten, 614 lagunek hain justu. Aizkardikoek eskerrak eman dizkiete Ibilaldia egiten lagundu dieten guztiak.

Izena eman zuten guztiak ez zuten parte hartu, 222 mendizale ez baitziren irten. Euririk ez zuen egin, baina lokatza topatu zuten mendizaleek ibilbideetan. Ibilbide luzea 46 kilometro ingurukoa zen eta Euskal Herriko Iraupen Luze-ko Ibilaldiaren Zirkuiturako baliagarria da; bertan, 346 partaidek amaitu zuten. Mendizale gehienek zortzi eta hamar ordu artean amaitu zuten.

Ibilaldi motza 22 kilometro ingurukoa zen eta 268 mendizalek amaitu zuten bidea. Gehienak lau eta bost ordu bitartean iritsi ziren helmugara.



Mendizaleak sorginen zubitik igarotzen, ibilaldi luzea bukatzean. AIZKARDI



Mendizaleak ibilaldi luzearen irteeran eta bukatu eta gero luzaketak egiten. AIZKARDI/IVUYA URRUTIA



Irurako jubilatuek argazki zaharren bilduma egin nahi dute

ERREDAKZIOA

Irurako jubilatuei herri mailan argazki zaharren bilduma egitea otu zaie. *Irurako sendiak eta familiak* da aukeratu duten gaia. Gurasoak beraien seme-alabekin agertzen diren 1970. urtea baino lehenagoko argazkiak batu nahi dituzte, Iruran bizi zirene eta bizi izan direnenak.

Jubilatuek azaldu dutenez, «herriaren aldaketak direla eta, garrantzitsua iruditzen zaigu, garai horretan zein familia bizi ziren jakitea. Horregatik, oroigarri moduan bildu nahi ditugu haien argazkiak». Gaineratzen dute argazki asko galduta egon daitezkeela. «Hala ere, gelditzen direnekin, bilduma osatzea gustatuko litzazuke. Herriaren ezaugarri bezala, etorkizunerako gordeta geldi daitezkeen».

Argazkiak bildu eta kopia egin ondoren berriro itzuliko dituzte. Lagundu nahi duten guztiak harremanetan jarri behar dute Irurako Zaharren Biltokiko zuzendari-tzarekin.

Laburrak

Loatzo musika eskolako batzarrak deitu ditu

MUSIKA • Loatzo musika eskolako batzarrak egingo ditu herri guztietan. Gaur Adunan egingo dute, 19:00etan, udaletxean. Anoetan apirilaren 6an egingo dute, 19:00etan, udaletxean. Iruran apirilaren 7an egingo dute, 19:00etan eta udaletxean. Altzon apirilaren 21ean izango da, 19:30ean eta udaletxean.

Josten ikasteko ikastaroa antolatu dute

IRURA • Udalak josten ikasteko ikastaroa antolatu du. 12 ordukoa izango da eta astelehenetan egingo dute, 18:30etik 20:30era, egun hauetan: apirilak 20 eta 27, maiatzak 4, 11, 18 eta 25. Matrikula 10 eurokoa da eta izena udaletxean eman behar da apirilaren 6a baino lehen.

Txolarre Irratiaren bertso afarirako txartelak salgai

TOLOSA • Txolarre Irratiak, *Kabitik Plazara* egitasmoaren baitan, bertso afaria antolatu du Tolosako lurre elkartearen apirilaren 4rako. Sarrerak salgai daude lurre elkartearen bertan, Raku Tabernan eta Gal-tzaundiren egoitzan 25 euroren truke.

EHEk Osakidetzako oposaketak salatu ditu

ERREDAKZIOA

Villabonako Euskal Herriaren Euskarazek (EHE) aurten egingo diren Osakidetzako oposaketetan «euskaldunok pairatzen ditugun hizkuntza eskubideen urraketak orokortu besterik ez» direla egingo azaldu du. EHEk gaineratzen duenez, «euskaldunok gure herriko zerbitzu publikoetan gure hizkuntzan artatuak izateko eskubide

osoa dugu eta zoritxarrez oposaketa hauek eskubide honen boronbata sistematikoki sakontzea besterik ez dute ekarriko».

Euskararen aldeko mugimenduak mobilizatzen deitu ditu herrietarrak. Hurrengo mobilizazioa apirilaren 4an izango da, 12:00etan. Barakaldoko BECeke sarrera nagusian elkarretaratzea egingo dute.



EHEk Villabonako osasun-zentroaren aurrean jarritako pankarta. HITZA

Bertsolar HITZA finala: Alegia Vs. Altzo

Bertsolaritza » Helduen bertso eskolen arteko txapelketaren finala apirilaren 4an, larunbatean, jokatuko dute Ibarako Gaztetxean 14:00etan.

ASIER IMAZ

Alegiak edo Altzok: nork irabaziko du Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bertsolar HITZA Desafioa?

Helduen bertso eskolen arteko txapelketaren finala apirilaren 4an, larunbatean, jokatuko da Ibarako Gaztetxean.

Leku eta ordu aldaketa

Hasiera batean finala Tolosaldeko Oargi elkartearen jokatu behar zen. Baina Ibarra azken saiotik at gelditzean, hiru taldeek Ibarako Gaztetxean jokatzearabaki dute. Bertan hasi zen aurtengo Bertsolar HITZA Desafioa eta han bizitako

giroa ahaztezina izan zen. Oroitzapenak gogoan finala apirilaren 4an, larunbatean, jokatu da Ibarako Gaztetxean.

Bigarren aldaketa ordutegiari dagokiona izango da. Orain arteko saioak iluntzean, afariaren ostean, jokatu izan dira. Finala ez da horrela izango: bertso bazkaria 14:00etan hasiko da. Bapojan ostean, 8 bertsolariak mikrofono aurrera joango dira.

Aitzakiarik egon ez dadin, gaiak jartzen punta-puntako bertsolari

bat ariko da: Amaia Agirre. Berak sortuko ditu finaleko ariketak. Hauei erantzunaz ondorengo zortzi bertsolariak egongo dira Ibarako Gaztetxean: Alegiatik, Beñat, Felix, Iriarte eta Zaztarre. Altzoko taldearen izenean, berriz, Iker Laso, Iñaki Olano, Adur Gorostidi eta Iñigo Gorostartzu.

Sarrerak erosteko bi aukera

Bazkaria edukiko duenez ardatz Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bertsolar HITZA Desafioaren finalak,

eta oparora gainera, sarrerak 20 eurotan egongo dira salagai.

Finalaren lekuko izan nahi dutenek sarrerak bi modura erosi ahal izango dituzte: hiru bertso eskoletako kideren bati euren izenak emanaz edota 687 41 0118 telefono zenbakira deituz.

Orain arteko saioen arrakasta kontutan hartuta, antolatzaileek sarrerak lehen bailehen erostea gomendatzen dute.

Azkenik, finalean egongo direnei goza dezatela eta zorionak!



Alegiatik Felix, Iriarte, 'Zaztarre' eta Beñat egongo dira Ibarako Gaztetxean apirilaren 4an. Altzoko taldearen izenean: Iker Laso, Iñaki Olano, Adur Gorostidi eta Iñigo Gorostartzu. A. IMAZ



Tolosako epaitegian bi gazte

POLITIKA » Bi gazte tolosarrek epailearen aurrean deklaratu behar zuten atzo goizean. Atzerapenarekin sartu ziren epailearen bulegoan, banaka eta bakoitz bere abokatuarekin. Batek epailearen galderak erantzun zituen, beste gazteak «errespetu guztiz» baina berak ez zuenez ezer egin uko egin zion deklaratzeari. Bi gazteek euren «errugabetasuna» aldarrikatu zuten beraz atzo Tolosaldeko epaitegian. «Erakunde armatuarekin kolaboratzea» leporatzen diete. Iragan urteko

uztailean, AHTren aurkako bizikleta martxa batean, Ertzaintzak Segiren sinadura zuen kartel bat aurkitu zuen motxila batean, martxan parte hartzen ari zirenak identifikatzen ari zenean. «Hortik dator kontu guzti hau». Orain epaitegitik «Madrilera bidaliko dituzte deklarazioak» eta erantzunaren zain gelditu dira bi gazteak. Hauei babesa eta elkartasuna eskainiz, atzo Tolosaldeko epaitegiaren aurrean 80 lagun bildu ziren, *Gazte eta aske; irabazi arte* lelopean. A. IMAZ


Laburrak

Jasoaldirik gabe amaitu zuten Josetxo Urrutiak

LEITZA » Seigarren urtez jokatu zuten herenegun Nafarroako Etxauri herrian bere izena daukan harri-jasotze Txapelketa. Lehen aldiz Aimar Irigoinek irabazi zuen txapelketa, 13 jasoladi eginda. Horrenbestez, Joseba Ostolazak 2007an ezarritako marka berdindu egin zuen erretildar gazteak. Josetxo Urrutia leitzarra, iaizko txapeladuna, ezinean ibili zen eta jasoaldirik eman gabe 3. gelditu zen.

Energia berriei buruzko hitzaldia ostiralean

BERASTEGI » Aldin Kultur Elkarteak hitzaldia antolatu du apirilaren 3an, ostiralean, 20:00etan. Sinerjia Sostenable taldeak eskainiko du Gaztainondo Jubilatuta Elkartearen hitzaldia eta gaia ondorengoa izango da: *Energia berriztagarrien aplikazioa eta praktikotasuna*. Antolatzaileek jakinarazi dutenez «ostiraleko hitzaldia herri guztiari zuzendua egongo da». Beraz, herri-tarrak gonbidaturik daude.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Tolosa.** Artikutza-Ituren (Nafarroa) mendi irteera antolatuta du Al-pino Uzturre mendi elkarteak apirilaren 5erako. Izen-ematea, elkar-teen (Gudari 5, 943 652789) edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean.

■ **Tolosa.** Amaroako Auzo Elkartek IX. Araxesko Mendi Itzulua antolatuta du apirilaren 5erako, 07:00etan abiatuta, 9-11 orduko proba, doan. Izen-ematea, 656 00 89 57 (Jose Mari) telefono zenbakira deituta, auzoetxe@hotmail.es helbidean.

Deialdiak

■ **Anoeta.** Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaiara antolatuta du apirilaren 16rako: kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolategia bisitatu, ondoren bazkaria. Bazkariak eta autobusak, 28 euro (30 euro ez denarentzat). Izen-ematea, biltokian bertan egin dezakete interesatuek.

■ **Leaburu.** 55ko kintoen festa apirilaren 4ean Leaburun meza eta bazkaria bertako Ostatuan egingez. Izen-ematea, 943 671548 telefono zenbakian.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek antolatuta irteera hauetarako lekuak gelditzen dira: Asturias (hilarren 23), Galiza (maiatza) eta Platja de Aro (ekaina). Izen-ematea, elkartean bertan. Galizara maiatzaren 11tik 17ra joango dira 255 eurotan (ez bazkideek 260 euro ordaindu behar dute). Izen-ematea, elkartean bertan egin dezakete interesatuek.

■ **Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako graduatu titulora lortzeko proba libreak aurki izango dira Tolosan. Izen-ematea Tolosako HHIn eman beharko da izena, eta azterketa maiatzaren 20an izango da, EPAn bertan.

Erakusketak

■ **Hernialde.** Argazki kamera zaharren erakusketa ikusgai Herriko Ostatuan, apirilaren 6ra bitartek.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.



'Bayoneta'-ren 2. alea, bihar kalean

TOLOSA ■ *Bayoneta* aldizkariaren bigarren alea aurkeztuko dute bihar, 20:00etatik aurrera, Kultur Etxeko aretoan. Aurkezpenarekin batera, *Los Duelistas* filma (Ridley Scott, 1978) emango dute. *Bayoneta* aldizkariak Tolosan garai haietan bizitakoak kontatzen ditu. Hala, gaur egungo albis-

teak eman ordez, historian atzera egiteko aukera izango da, eta Tolosan duela 200 urte gertatutakoak kontatuko ditu. *Bayoneta* izena jarri zioten aldizkari berezi honi, eta lehen alea pasa den abenduan zabaldu zuten kalean lehen aldiz. ESTI EZEIZA

A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitizan: Udaletxeko bulegoa

Ateak zabalik jardunaldia

Prestakuntza-Ziklo berriak, zator informatzera!!!



cebanc

astrosokemien apirilak 1 eta ostegunean apirilak 30, cebanc-era, 19:00etan Berio Pasealekua 50 (Unibertsitatearen ondoan)


ETORRITZA: EGOKITARI HARRER:

Barrualdearen@cebanc.com

ETXIZI ZURE ONDO: 90000 eta telefonoa

TELEFONO MUGIKORICHA AGENTSIATUA (IPDA)

BERIOA AVILA (LANGO DOKU)



Informazio-entzaintza bertako ikasleak lagunduta
Zerezoen kuzkale gaitasun
Irakaskeraren aldetik ariete personalizatuta
Go Mailako Ostalaritza Eskolako kideak
prestakuntza proiektuak osatzen dituzte

Berio Pasealekua, 50 - 48008 Donostia - San Sebastián - Tfno: 943 91 69 00

www.cebanc.com

Etxebizitza gehigarria

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



ERAIKUNTZA ERE KRISIAN

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Egoera ekonomikoak gogor jo du eraikuntzaren sektorea; eraikuntza eta higiezin enpresek «eragina jasaten» ari direla diote; eskualdeko datuek ere hori erakusten dute, salmenten jaitsiera nabarmena



T. 943 651 465
M. 608 676 348

Benta Aldea Industrialdea, 6
20270 Anoeta

www.zuriarrain.net
info@zuriarrain.net

iturgintza &
bainugelak

Azken hamar urteetan neurritz kanpoko igoera izan du etxebizitzaren prezioak, hirukoiztera ere iritsi baita; etxebizitza berrietan, erabilitakoetan eta alokairuetan gertatu da joera hori; igotzeari utzita, beheranzko bideari ekin diote orain.

Goia jo ostean, beheranzko bidean

Egoera aldatuko zela gauza jakina zen, eta muga ederki gainditu ostean beheraka hasiko zela ez zuen inork zalantzan jartzen. Inor gutxi espero zuen, ordea, egungo egoerara iritsiko ginenik: etxebizitzak eraikitzeari utzi diote, salerosketak izugarri egin du behera, prezioak jeitsi beharra izan dituzte... eta hau guztia gizartearen esparru ia gehienetan zabaldu dagoen krisiari batu zaio. Eraikuntzak dirutza handia mugitzen du oraindik ere, baina ez lehengo abiaduran; motel dabil, geldirik. Garai oparo haiek amaitu dira, oraingoz behintzat.

Bilakaera izugarria izan du azken urteetan etxebizitzaren salerosketak. Prezioek, bai etxebizitza berrienak, erabilienak bai eta alokairuenak ere, nabarmen egin dutela gorantz ikusi dugu, kasu askotan, epe motzean hirukoiztu ere egin direlarik. Eusko Jaurilaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak emandako datuen arabera,

Etxebizitza berrien eta erabilien prezioa hiru aldiz igo da azken hamarkadan


Alokairuaren batez besteko prezioa bikoiztu egin da; oraindik ez du beheranzko joera hartu

ra, etxebizitza berrien kasuan, 1.546 etxebizitza libre jarri ziren salgai iaz Gipuzkoan, eta batez beste, 360.000 euroan saldu ziren (4.243 euro m²ko). 10 urte atzera eginez gero, 1998an, 123.800 euro ordaindu zen, batez beste, etxebizitza berri batengatik (1.418 euro m²ko), hiru aldiz gutxiago.

Babes Ofizialeko Etxebizitzetzerreparatzen badiugu, 99.900 euro izan zen iaz, hauen prezioa, batez beste, eta 1998an, 48.400 eurokoa bi aldiz gutxiago, beraz. Kasu honetan, aipatzekoa da kopuruak ere modu horretan egin duela gorantz, hau da, 1998an, 546



Etxebizitzaren salerosketak behera egin duenez, egun, etxebizitza gutxiago eraikitzen dituzte. N.L.



Etxebizitzaren prezioa m²tan eta alokairua 1994tik aurrera. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA.

Babes Ofizialeko Etxebizitza egin nabarmen egin du gorantz azken urteetan. M² erabilgarriaren batez besteko prezioa ia hirukoiztu egin da azken urteetan; izan ere, 1998an, 1.794 euroan saldu zen batez beste m²a, eta 2008an, 4.809

Erabilitako etxebizitzetako kopurua eta prezioa gorantz

Erabilitako etxebizitzaren prezioak ere nabarmen egin du gorantz azken urteetan. M² erabilgarriaren batez besteko prezioa ia hirukoiztu egin da azken urteetan; izan ere, 1998an, 1.794 euroan saldu zen batez beste m²a, eta 2008an, 4.809

euroan. Etxebizitza osoak kontuan hartzen baditugu, 1998an batez beste 190.700 euroan saldu ziren, eta 2008an, berriz, 398.400 euroan. 10 urteren buruan prezioak bikoiztu egin direla esan daiteke. Baina, aurreko urtea aintzat hartuta, 1997a alegia, 138.400 euroan saldu zirela ikus dezakegu, beraz, kasu honetan ere, hirukoiztu egin dira.

Aipatzekoa da, halaber, azken bi urteetan jauzi handia eman duela

salgai jarri diren etxebizitza erabilien kopuruak. 2006an 1.090 etxebizitza jarri ziren salgai, eta pasaden urtean, 2.123.

Alokairua ere ildo beretik

Ez da, ordea, igoera salerosketan soilik eman, etxebizitzaren alokairuak ere jasan baitu joera hori. Gipuzkoan, batez beste 491 eurokoa zen alokairua 1998an, eta pasaden urtean, berriz, 1.086 eurokoa. Berrezi azken urteetan jasan du igo-

erarik handiena alokairuak, eta nabarmenena 2007tik 2008ra, 2007an 901 eurokoa baitzen. Beraz, urte batean, 185 euro gehiago ordaindu da, %20a, hain zuzen ere.

Pixkanaka beheraka

Alokairua ez da 2008an beheranzko joerarekin hasi; bai, ordea, etxebizitzaren salerosketa, eskualdeko eraikitzaileek diotenaren eta datuek erakusten dutenaren arabera. Erabilitako etxebizitzetako 2008 urtearen hasieran hasi zen nabaritzen joera hau; hain zuzen ere, 2007ko azken hiruhilekotik 2008kora, %1,6ko jeitsiera izan du.

Etxebizitza berriek ere beheranzko bideari ekin zioten 2008ko bigarren hiruhilekoan; orduan laugarren hiruhilekora, %0,65 jeitsi da m² erabilgarriaren batez besteko prezioa, jeitsiera egon da, baina oso gutxi nabaritu da.

Aurten ere beheranzko bideari eusten diote prezioek, salmentekin batera. Noiz arte? Datorren urtera arte behintzat horrela mantenduko dela diote batzuek, eta gehiago luza daitekeela diotenak ere badira. Galdera horren erantzun zuzena aurkitzea zaila bezain desiratua da une honetan.

Finantziakuta: kutxa
Erresuma Inbertitzaileak: Arrasate

Jauregi alde koop.

etxebizitza kooperatiba, zure etxea koste prezioan!

bizi ingurune zoragarrian

Informazio eta salmenta:
Arrasate Inbertitzaileak eta Zerbitzuak S.A.
902 117 017
Iturrioz kalea 11, Arrasate
arrasate@inmoarrasate.com
www.inmoarrasate.com

E | Elkarrizketa

JUANJO OTEGI | Otegi Eraikuntzak enpresaren jabea

«Bezeroak inoiz baino hobeto daki erosteko zer ahalmen duen»



I. TERRADILLOS

Eraikuntza » Egoera ekonomikoak eraikuntza sektorekoen «eguneroko lan egiteko modua» aldatzera behartu dituela dio Otegi.

«Kontsumismoaren abusoak eraman gaitu amildegira», dio Otegi Eraikuntzak enpresako jabe Juanjo Otegi, egungo egoera ekonomikoaren analisia egiterakoan eta ondorioak, batez ere, «maila erdiko eta bajuko jendeak» pairatuko dituela gaineratu du.

Higiezinaren burbuila lehertu da azkenean...

Ziurrenik egungo egoeraren erroa ez dago etxebizitzan. Guztia da gehiegikeria bat egon delako sistemaren eta kontsumismoak berak eraman gaitu amildegira. Abiadura galanta egon da, gehiegizkoa... Herritarrak engainatu dituzte. Niri gaztetan erakutsi zidaten azkar eta ondo bakarrik usok egiten zuela.

Etxebizitzan ere azkarregi egin dira gauzak.

Oro har sistemaren egon dasekulako abiadura. Guztiok onartu dugu inposatu diguten sistema hau eta, beraz, denok dugu erroaren parte bat. Noski, beti bezala, gutxien duenak jasango ditu kalteak eta alderantziz izan beharko luke.

Baina espero al zenuten egoera hau?

Gure kasuan, promoziora dedikatzen gara eta harrapatu gaitu. Au-

reko urteetan aurreikusten saiatu gara, izan ere, argi nuen bide honek ez zuela luzerako iraungo. Baina, egia esan, ez nuen uste hain azkar jaitsiko zenik.

Igo ere oso azkar igo zen.

Hori da; banekien topera joko zuela, baina hor zelai une bat egongo zela uste nuen, ez igo bezalako abiadura jaitsiko zenik. Guztioi harrapatu gaitu, baita estatuko aholkulariei ere; demostratu dute egoera honen aurrean ez dakitela nola jokatu.

Eta noiz arte aurreikusten duzu iraungo duela honek?

Gustatuko litzaidake esatea bihar bertan amaituko dela, baina egoe-

Beti bezala, gutxien duenak jasango ditu kalteak, eta alderantziz beharko luke

rari buelta eman aurretik iruditzen zait erdi mailakook asko sufritu beharko dugula.

Sufrimendu hau ekiditeko, zein izango litzateke irtenbidea?

Ez nuke nahi inor ofenditzetik, baina uste dut guztiok jarri beharko dugula bizkarra. Baina, noski,

batzuk maila batean eta beste batzuk bestean; hau da, ahalmenen arabera eman beharko genuke laguntza. Bakoitzak badaki zenbat duen eta, zenbat jarri beharko luke. Hemen inor ez da salbatzen.

Aurreikuspenak oso ezkorrik dira, ordea.

Negatibo zentzuarekin jokatzeari *Basta* esan behar diogu. Danok alde positiboan jarri behar dugu. Zentzu horretan bai mezulariak bai mezua zabaltzen duzuenok — komunikabideak — bertan sartzen dute ezkortasun hori. Ilusioarekin egin behar dugu lan.

Dagoeneko igerrri al dituzue ondorioak?

Egunerokotasunean sentitzen dugu eragina. Aurrez planteatuta genuen lan egiteko modua ere aldatu egin dugu, eritimoa eta izaera bera aldatu behar izan ditugu, lan gehiago egin behar da.

Erakundeek hartu dituzten neurriak nahikoak al dira?

Gure sektoreari esku bat bota digutela dirudi, baina tapadera hutsa da, neurri horiek ez garamatzate inora. Adibide bat jarriko dizut: Izorratuta dagoen galtzari errematzea jarrita, uanean bertan balio dezake baina galtza hori zaharra da eta beste errematxe bat egingo zaio.

Alegia, neurriak ahalak direla.

Ez dira firmeak, eta ez badute arduraz jokatzeko ez garamatzate inora. Beraiek sartu gaituzte siste-

ma honetan eta beraiek atera behar digute egoera honetatik. Nahikoa da herritarrak engainatzeaz. **Baina azkenean beraiek poltsikoa beteta eta herritarrek hutsak.** Bakoitzak gure mailan jasoko dugu krisia, batzuk aurre egingo diote beste batzuk ez. Argi dago sistema erabat aldatu behar dela, bestela ez delako egongo irtenbiderik.

Enpresa askotan, ordea, lehen urratsa langileen kaleratzea da.

Enpresak eta enpresak daude, izaerak eta izaerak dauden bezala. Ni ofendituta sentitzen naiz, ez garelako denak berdina. Oso argi daukat enpresari batek langileak gertukoak sentitzen baditu dana egingo duela beraiantzat. Nire kasuan, behintzat horrela da. Beste batzuentzat, langilea zenbaki bat baino ez da eta zenbaki hori produktibo izateari uzten dionean kaleratu egiten dute. Eskrupulo gabeko jendea da, baina hori ez da errealitatea.

Gutxiengoa dela esango zenuke, beraz.

Askok, nik barne, langileek enpresaren errealitatea ezagut dezaten nahi dugu.

Une honetan, zer eskari jasotzen duzue bezeroengandik?

Bezeroak inoiz baino hobeto daki orain erosteko zer ahalmen duen. Jende asko konturatu da ez duela kapazidaderik etxebizitza erosteko, bere ahalmenen arabera.

Horretarako daude banketxeak, ezta?

Gaur egun etxebizitzaren balioaren %20a ez badu alperrik da. Beraiek badakite lehen etxebizitza eskuratzeko zer jende mota dabilenbela — 22-35 urteartekoak — eta ezinezkoa dela diru hori esku artean izatea, guztion artean horrela diseinatu gaituztelako. Ezet esateko beste modu bat da. Kanpoan uzteko bidea irekitzen dute.

Banketxeek baldintzak gogortu dituztela esan nahi du horrek?

Etxebizitzaren balioaren %120 ematetik %75a ematera pasatu da. Horrela buelta ematea oso zaila da eta gure sektoreak zuzenki jasango du. Baldintzak aldatu egin dituzte eta aurkakoa dioena gezurretan ari da. Herritarrak ez ditugu engainatu behar. Herritarrak porrotera eraman dituzte banketxeak.

Beste ondorio bat etxebizitza beraren prezioaren jaitsiera izan da.

Bai, asko jaitsi dira, hainbat kasutan gastuak kubritzeraino heldzen ez dela, gezurra dirudien arren.

Konstrutoreak berak galdu egiten duela esaten ari zara?

Bai, kasu hauetan konstrutoreak galdu egiten du. Badirudi azken 10

urteetan eraikuntza oso haragi-goxoa zela denentzat. Baina elbi beltz gehiegi gerturatu zaizkio eta herritarrek ordainduko dute elbi beltz horiek egindakoa. Hauentzat espetxea lujoa da.

Eta elbi beltz horiek igo zuten etxebizitzaren prezioa?

Bai, esaterako, seguruaren gaineko seguruak. Udaletxeak, urbanizazio kargak, energia berriztatzaileak, Euskaltel, ... Pentsa, duela 10 urte adreiluaren metro koadroa garestigoa zen, baina ez zeuden

Langilea zenbaki bat balitz bezala tratatzen duten enpresariak ez du eskrupulorik

hauek denak. Guztiak batuta etxebizitzaren balioaren %22a elbi beltzak dira, hau da, beharrezkoak ez diren gastuak.

Lurraren garestitzeak ere izango zuten eraginik.

Noski, honen eraginpean etorri dira gainontzeko gehituriko kostu guztiak. Lurraren balio neurri desitxuratu gero da, kontrol falta ikaragarria egon da.

Baina etxebizitzak saldu eta erosi egiten diren.

Guztion errua da. Denok onartu dugu elbi beltz horiek nahi zutena egitea. Inork ez zuen zalantzan jarri herritarrentzat zer suposatzen zuten, eta orain herritarrek pairatu behar dituzte ondorioak. Edozein gauza lege bilakatzen utzi zuten; ondorioz, langile arrunt batek ezingo ditu kostu hauek ordaindu.

Eta eskualdearen egoera nola ikusten duzu?

Antzeko zerbaite ikusten dut, salbuespenik gabe. Guk hemen egiten dugu lan eta aipatutakoa ikusten dut. Prezioak ezin dira ia gehiago jaitsi. Konstrutoreak erabaki hori hartzen du banketxeen esku ez uzteagatik.

Etxebizitza erosteko une aproposa da, hortaz.

Dudarik gabe onena da, baina non dago arazoa? Ahalmena edukirik behar dela, eta nork du une hauetan? Gazteak, esaterako, sekulako arazoa du. Eta non geratuko da euren ilusioa? Asko arduratzen dit honen.

Sektorean negozioa egin nahi izan duenik ere bada.

Bai, hau ere akatsa izan zen, baina betikora noa, berdinek sustatu dute hau ere. Herritarrak espekulazioa eraman dituzte. Beharrezkoa ez zen kontsumoa egon zen une horretan eta mundu guztia higiezinako enpresa zela zirudien.

Zer proiektu dituzu eskualdean?

Berrobin, Baliarrainen, Abaltzizketan, Tolosan eta Ibarraoan dauzkagu proiektuak. Nafarroan eta Goierriin ere ari naiz lanean. Oraingoz pistoia jaitsi dugu pixkat, eta kanpo eraikuntzan ari gara, ikusi arte nora doan egoera. Egoerari eusteko dana emango dugu; langileengan konfiantza osoa dut.